

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

2. zenbakia

Data 2002-01-04

101 orria

3 GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK
ALDUNDIA - OGASUNA ETA FINANTZAK
Abenduaren 26ko 1332/2001 Foru Agindua, 320, 347, 349, 370, 390, 391 eta 392
ereduak onartzen dituen.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

Abenduaren 26ko 1.332/2001 FORU AGINDUA, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 320, 347, 349, 370, 390, 391 eta 392 ereduak onartzen dituen.

46/1998 Legeak 23. artikuluan dioenez, 2002. urtetik aurrera moneta sisteman bakarrik euroa erabiliko da kontu-unitate gisa, eta zenbateko monetarioak adierazten dituzten tresna juridiko guztietan euro kontu-unitatea erabiliko da.

Foru agindu honen helburu bakarra aurreko eredueta pezeta kontu-unitateari buruzko aipamen guztiak ezabatzea eta eredu horiek moneta unitate berrira egokitzea da.

Eredu horiek 2002. urtean erabili behar dira lehenik, Euroa sartzeari buruzko abenduaren 17ko 46/1998 Legeak 12. artikuluan aipatutako aldaketa epea bukatu ondoren. Izan ere, epe hori 2001eko abenduaren 31n amaituko da.

Horren indarrez, hau

XEDATU DUT

1. artikulua. 320 eredu onartzea.

Bat. Onarturik geratzen da Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hileko aitortpen-likidazioa egiteko erabiliko den 320 eredu berria –Enpresa Handiak–, foru agindu honetan I. eranskin gisa ageri dena.

Eredu hau bi alez osaturik dator, bata administrazioarentzat eta interesatuarentzat bestea.

Bi. Eredu hau erabili behar izateko, subjektu pasiboek ondoko baldintzak bete behar dituzte:

1. Aurreko urte naturalean izandako eragiketa bolumena, abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak 121. artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulatu dena, abenduaren 29ko 1.624/1992 Errege Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzekoak, 71.3.1 artikuluan jasotzen duen zenbatekoa baino handiagoa izatea.

2. 102/1992 Foru Dekretuaren 116. artikuluan aipatzen den esportatzaileen eta bestelako operadore ekonomikoen erregistroan alta emanda ez egotea.

Hiru. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aitortpen-likidazioa Gipuzkoako Foru Aldundian bakarrik aurkeztu behar duten subjektu pasiboek nahiz, lurralde bakoitzean egindako eragiketa kopuruaren arabera,

Foru Aldundi honetan ez ezik beste Zerga Administrazio batzuetan aurkeztu behar duten subjektu pasiboek erabili behar dute 320 eredia.

Lau. 320 eredia aurkeztu eta, hala dagokienez, ordainduko da hileko likidazioaldia bukatu eta ondorengo lehen hogeita bost egun naturaletan.

Salbuespen gisa, uztaileko aitortpena eta, hala bada, hari dagokion ordainketa ondorengo abuztuaren 1a eta irailaren 25a bitartean egingo dira.

Abenduko likidazioaldiko aitortpen-likidazioak «urteko laburpena» aitortpen-likidazioan sartuko dira, hots, 390 eredian.

2. artikulua. 347 eredia onartzea.

Bat. Onarturik geratzen da hirugarren pertsonekin egindako eragiketen urteko aitortpena egiteko erabiliko den 347 eredia, foru agindu honetan II. eranskin gisa ageri dena. Honako dokumentuok osatzen dute eredu hau:

a) Laburpen orria.

b) Barruko orriak.

c) Negoziolekuen errentamen-duak zerrendatzeko eraskin orria.

Eredu hau bi alez osaturik dator, bata administrazioarentzat eta interesatuarentzat bestea.

Bi. Izaera publiko nahiz pribatuko pertsona juridiko guztiek eta Zergen Foru Arau Orokorraren 33. artikuluan aipatzen diren entitateek aurkeztu beharko dute nahitaez 347 eredia, hirugarren pertsonekin egindako eragiketen urteko aitortpena arautzen duen abenduaren 17ko 94/1996 Foru Dekretuak 1. artikuluan dioenarekin bat etorritik.

Hiru. Hirugarren pertsonekin egindako eragiketen urteko aitortpen eredia, 347 deritzona, urte bakoitzeko otsailean zehar aurkeztuko da, eta aurreko urte naturalean egindako eragiketak jasoko ditu.

3. artikulua. 349 eredia onartzea.

Bat. Onarturik geratzen da «Europako Batasuneko subjektu pasiboekin egindako eragiketak laburbiltzen dituen 349 aitortpen eredia», foru agindu honetan III. eranskin gisa ageri dena.

Aitortpen ereduak, laburpen orriaz gainera, honako barne-orri hauek ditu: Elkarre barruko entrega salbutsiei dagozkienak, zergari lotuta dauden elkarre barruko eskurapenei buruzkoak, eta batzuei zein besteei dagozkien zuzenketak adieraztekoak.

Orri bakoitzak bi ale ditu, bata administrazioarentzat eta bestea, interesatuarentzat.

Bi. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduak 79. artikuluan aurreikusten dituen eragiketak burutu dituzten Zerga horren subjektu pasiboek aurkeztu beharko dute, elkarre barruko eragiketak laburbilduko dituen aitortpena, eragiketa horiek egiaztatu eta ikertzea Zerga Administrazio honen zeregina denean.

Hiru. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduak 79. eta 80. artikuluetan ezarritakoari jarraiki, aitortpen laburtzailean honako eragiketa hauek adieraziko dira:

1. Beste estatukide batera egindako ondasun entregak, abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Legea egokitzeak, 25. artikuluen lehen, bigarren eta hirugarren apartatuetan xedatutakoaren arabera salbuesten direnak.

102/1992 Foru Dekretuak 9. artikulua 3. zki.an jasotzen dituen ondasun transferentziak eragiketa horien artean sartuko dira.

Honako eragiketa hauek, berriz, hortik kanpo geldituko dira:

a) Garraiobide berrien entregak, 102/1992 Foru Dekretuaren 5. artikulua lehen apartatuaren e) parrafoan aipatzen dituen pertsonen noizean behin egindakoak.

b) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren subjektu pasiboek Europako Batasuneko beste ezein estatukidetan zerga horren ondorioetarako identifikazio zenbakirik ez duten hartzaileentzat egindako eragiketak.

2. Zergari lotuta dauden elkarte barruko eskurapenak, zergaren aplikazio lurraldean tributu horren ondorioetarako identifikaturik dauden pertsona edo entitateek eginak badira.

Eragiketa horien artean beste estatukide batetik egiten diren ondasun transferentziak, hain zuzen ere, 102/1992 Foru Dekretuak 16. artikulua 2. apartatua aipatutakoak, sartuko dira.

3. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako, Espainiako administrazioetik identifikazio zenbaki bat jaso duten enpresari eta profesionalek 102/1992 Foru Dekretuaren 26. artikulua hirugarren apartatuaren arabera beste estatukide batzuetan egiten dituzten entregak, elkarte barruko eskurapenen ondoren burutuak badira.

4. Aurreko zenbakietan aipatu diren eragiketei dagozkien zuzenketak, baldin eta aurreko epealdiei buruzko aitorpenetan jaso badira, zergaren Erregelamenduak 80.2 artikuluan aurreikusten dituen baldintzetan.

Lau. Eragiketak laburbilduko dituen 349 aitorpen Ereduaren aukezpena dagokion hiru hilekoa amaitu eta hurrengo hilabetearen lehen hogeita bost egun naturalen barruan egingo da. Urteko azken hiru hilekoari dagokiona, berriz, urtarilaren lehen hogeita hamar egun naturalen barruan aurkeztu beharko da.

Nolanahi dela ere, urte naturalari dagokion aitorpen laburtzailea hurrengo urteko urtarilaren lehen hogeita hamar egun naturalean zehar aurkeztu ahal izango dute subjektu pasiboek, baldin eta jarraian adierazten diren bi baldintza hauek betetzen badira:

1. Aurreko urte naturalean zehar egindako ondasun entrega eta zerbitzu prestazioen zenbateko osoa, BEZa kanpoan utzita, 27.346,05 euroko kopurura ez iristea.

2. Abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuaren 25. artikulua Bi eta Hiru ataletan ezarritakoaren arabera, aurreko urte naturalean zehar egindako elkarte barruko ondasun entrega salbuetsien zenbateko osoa, garraiobide berriei dagozkienak salbu, 7.813,16 euroko kopurura ez iristea.

Jarduera hasten den ekitaldian, aipatu diren zenbatekoen konputua jardueraren ekitaldiko lehen hiru hileko naturalean egindako eragiketak urte osora eramanez egingo da.

Bost. Aurreko apartatuaren xedatutakoaren kaltetan gabe, Esportatzaileen eta beste Operadore Ekonomiko batzuen Erregistroan sarturiko subjektu pasiboek martxo, ekain, irail eta abenduko aitorpen-likidazioak (330 erdua) hileko itzulketa eskatuz aurkezten dituztenean, hauekin batera aurkeztu beharko dute eragiketak laburbilduko dituen hiru hileko aitorpena (349 erdua).

4. artikulua. 370 erdua onartzea.

Bat. Onarturik geratzen da Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hiru hileko aitorpen-likidazioa erregimen orokorrean eta erregimen berezi erraztuan egiteko erabiliko den 370 erdua, foru agindu honetan IV. eranskin gisa ageri dena.

Eredu hau bi alez osaturik dator, bata administrazioarentzat eta interesatuekientzat bestea.

*Bi.*370 eredia erabili beharko dute BEZaren erregimen orokorra aplikagarria zaien jarduerak eta BEZaren erregimen berezi erraztua aplikagarria zaien jarduerak aldi berean egiten dituzten sujetu pasiboak. Dena den, subjektu pasiboak ez dira horretara behartuta egongo Esportatzaileen Erregistroan izena emanda daudenean, edo beren eragiketa bolumena, abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak 121. artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulatu dena, abenduaren 29ko 1.624/1992 Errege Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzekoak, 71.3.1 artikuluan jasotzen duen zenbatekoa baino handiagoa izan denean.

*Hiru.*370 ereduaren aurkezpena eta, hala behar denean, kuotaren zenbatekoaren ordainketa epe hauetan egin behar da hiruhilero:

—Apiril, uztail eta urriaren 1etik 25era, lehen, bigarren eta hirugarren hiruhilabeteei dagokienean, hurrenez hurren.

—Lagarren hiruhilabeteko aitorten-likidazioa «urteko laburpena» den aitorten-likidazioan sartuko da, eta ondoko lehen urteko urtarilaren 30era arte aurkez daiteke.

5. artikulua. 390 eredia onartzea.

Bat. Onarturik geratzen da Balio Erantsiaren gaineko Zergaren urteko aitorten-likidazioa egiteko erabiliko den 390 eredia, foru agindu honetan V. eranskin gisa ageri dena. Aipatu ereduak bi ale dauzka:

—Zerga Administrazioarentzako alea.

—Subjektu pasiboarentzako alea.

Bi. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren sujetu pasiboak izanik, hilero edo hiruhilero 300, 320 edo 330 eredu bitartez zerga horren aitorten-likidazioa aurkeztera behartuta dauden guztiek aurkeztu beharko dute 390 eredia.

*Hiru.*390. eredia aitortzen-likidatzen den urtea amaitu eta hurrengo urteko urtarilaren lehen hogeita hamar egun naturalen barruan aurkeztu eta, hala badagokio, ingresatu beharko da.

6. artikulua. 391 eredia onartzea.

Bat. Onarturik geratzen da Balio Erantsiaren gaineko Zergaren urteko aitorten-likidazioa erregimen erraztuan egiteko erabiliko den 391 eredu berria, foru agindu honetan VI. eranskin gisa ageri dena. Aipatu ereduak bi ale dauzka:

—Zerga Administrazioarentzako alea.

—Subjektu pasiboarentzako alea.

Bi. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aitorten-likidazioa hiru hilabetetan behin 310. ereduaren bidez aurkeztera behartuta dauden zerga horren subjektu pasibo guztiek aurkeztu beharko dute eredu hau.

*Hiru.*391. eredia aitortzen-likidatzen den urtea amaitu eta hurrengo urteko urtarilaren lehen hogeita hamar egun naturalen barruan aurkeztu eta, hala badagokio, ingresatu beharko da.

7. artikulua. 392 eredia onartzea.

Bat. Onarturik geratzen da Balio Erantsiaren gaineko Zergaren urteko aitorten-likidazioa egiteko erabiliko den 392 eredu berria, foru agindu honetan VII. eranskin gisa ageri dena. Aipatu eredia bi ale dauzka:

—Zerga Administrazioarentzako alea.

—Subjektu pasiboarentzako alea.

Bi. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aitorpen-likidazioa hiru hilabetero 370. ereduaren bidez aurkeztera behartuta dauden zerga horren subjektu pasibo guztiek aurkeztu beharko dute eredu hau.

Hiru. 392. Eredua aitortzen-likidatzen den urtea amaitu eta hurrengo urteko urtarrilaren lehen hogeita hamar egun naturalen barruan aurkeztu eta, hala badagokio, ingresatu beharko da.

8. artikulua. 320, 347, 349, 370, 390, 391 eta 392 ereduak aurkezteko tokia.

Bat. Informazioa emateko erabiltzen diren 347 eta 349 ereduak Zergabilketa Erregelamenduak bilketan laguntzeko baimentzen dituen entitateetan, zerga bulegoetan edo Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Departamenduko Zeharkako Zergen Kudeaketa Zerbitzuan aurkeztu ahal izango dira.

Bi. Foru agindu honetan onartzen diren gainerako ereduak toki hauetan aurkeztuko dira:

a) Aitorpen-likidazio positiboak izanez gero (ordaintzekoak), Zergabilketa Erregelamenduari jarraiki zergabilketan laguntzaile gisa jarduteko baimendutako entitateetako batean aurkeztu beharko dira: Bankuak, aurrezki kutxak edo kreditu kooperatibak.

b) Aitorpen-likidazioak negatiboak (konpentsatu edo, hala bada, itzultzekoak) direnean, aurreko apartatuan aipatu diren entitateetan ez ezik, zerga bulegoetan edo Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergak Kudeatzeko Zerbitzuko Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Atalean ere aurkeztu ahal izango dira.

Amaierako xedapena.

Foru agindu hau 2002ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean.

Donostia, 2001eko abenduaren 26a.—Antton Marquet Artola, Ogasun eta Finantza Departamentuko Foru Diputatua.